

Argi dute: zahartzaroan, etxebizitza kooperatiba

Senideak edo profesionalak zaintzaile dituztela etxean jarraitzea, edo bestela zahar-etxera joatea. Horiek ohiko ereduak, zahartzaroa iristen denean. Aukera berriak zabaltzen ari dira ordea, elkarren arteko zaintza, izaera komunitarioa, autogestioa, bizi-kalitatea eta adinekoen autonomia helburu.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: DANI BLANCO

“Zaharrentzako egoitzek duten ospitale kutsua ez dut gogoko eta batzuentzat norbere etxean bizitzea izango da aukera onena, baina beste batzuek nahiago dugu etxebizitza kooperatiboan erronka: harremanak, taldean erabakitzea, parte-hartzea, autonomia, aktibitatea... sustatzen dutelako, eta horrek guztiak bizirik mantentzen zaituelako. Jubilatuta eta gelditzea ez da nire filosofia”, dio Asun Fernandez Ostolazak. Eibartarra da bera, baina Bilbon bizi da, 64 urte ditu eta irakasletzatik erretiraturatuta dago. Adineko jendearentzako apartamentu egokituak eta espazio partekatutakoak uzartu nahi dituen Egunsentia proiektuko kide da: “Egunsentian, garai bateko auzoaren modukoa dugu buruan: bakoitzak bere pribatutasuna mantentzen du, baina bizilagunek elkar ezagutzen dute, elkarri laguntzen diote, eta espazioak partekatzen dituzte harremanak eta ekintzak aurrera ateratzeko. Bakarrik bizitzeak azkenean alfergura, segurtasun eza eta inguruari gero eta beldur handiagoa izatea dakar eta nik izua diot horri”.

“Bai, aspaldi herri eta komunitate txikitik zeramaten bizimodua berreskuratzea da asmoa. Gaur egun, kultur-etxea da gauzak antolatzen dituen eta proiektu kooperatibo hauetan berriz, askoz errazagoa da gu geu antolatzea eta jarduerak guk geuk erabakitzea, hori

bilatzen dugun jendea gaudelako, hala ere leku batera hurbiltzen garenok profil jakin bat daukagulako eta normalean zabalik gaudelako ikasteko eta irakasteko”, gaineratu du Fernando Abajo Solerrek. Ezkondua eta seme batekin, Sondikan bizi den bilbotar honek 54 urte ditu eta lanean ari da oraindik, baina Brisa del Cantábrico egitasmo kooperatiboan izena eman du dagoeneko, emaztearekin bertaratzeko. Proiektua martxan da eta Kantabriar dagoen arren, 329 bazkideetatik 80 euskal herritarrak dira. Brisa del Cantábricoko bultzatzaile Nemésio Rasillok ere bestelako zahartzaroa nahi du, amaren menpekotasuna bederatzi urtez bizi ostean. Erabakitze-ko autonomia, etxeak ematen dizun independentzia, konpainia, segurtasuna, eta finean, bizi-kalitatea ona bilatzen ditu proiektuan: “Ez dugu seme-alaba eta senideen bizitza hipotekatu nahi. Haien afektua eta laguntza puntuala behar dugu, baina gu zaintzeko zama inposatua kendu nahi diegu gainetik eta horretarako onena da gure bizitzaren ardura guk hartzea. Ohiko zahar-egoitzak gehiago daude pentsatuta hiltzeko, bizitzeko baino, eta ez dugu egoitza on batean bukatzeko adina dirurik. Ez da nahikoa oinarritzako arreta jasotzea, garbitu, jan eta janzea, beste era batera nahi dugu zahartu, independentzia nahi dugu eta bizimodu duina”.

Europako eredua: “Etxean edo etxean bezala”

Gizartearen %20 inguruk 65 urtetik gora dauzka Hego Euskal Herrian eta kopurua handituz doa urtez urte, bereziki EAEn (%145eko zahartze-tasa du). “Errealitate horren aurrean, etxebizitza eta ingurua (auzoa) egokituta izatea eta menpekotasun maila ezberdinen arabera laguntza/zerbitzuak ere neurri horretan jaso ahal izatea litzateke onena. Arazoa da gaztetan sartzen garela etxebizitza batzuetan, nahi dugu bizitza osorako izatea, baina ez daude zahartzarorako pentsatuta. Beharrak suertatu ahala, gure etxean ikusten ditugun gabeziak konpontzen saiatzen gara, baina ingurunea ez badago egokituta, kaiola batean bezala gera gaitzke, etxean preso. Aldi berean, zaharrek jasotzen duten laguntza familiarra handia da Euskal Herrian, eta badakigu horrek zein ondorio dituen”. Rehabilitate Espazioak Biziberritzen enpresako Aritz Berastegi eta Enrique Etxeberria arkitektoak dira mintzo zaizkigunak. Administrazioak gurean ematen dituen aukerak ere zehaztu dizkigute: eguneko zentroak batetik; menpekotasun arina dutenentzat tutoretzapeko apartamentuak bestetik, baina baldintza oso zehatzak betetzen dituztenei zuzenduta daude eta murrizta da eskaintza; eta azkenik, zaharren egoitza, 65-85 urteta-

A photograph of a man and a woman standing outdoors under a large tree with autumn-colored leaves. The woman, on the left, is wearing a dark blue puffer jacket over a light blue shirt and dark pants, holding a small book. The man, on the right, is wearing a dark grey hoodie and dark pants, with his hands in his pockets. They are standing on a grassy area with fallen leaves. In the background, a multi-story building is visible.

*Asun Fernandez eta
Fernando Abajo
etxebizitza kooperatiboa
helburu duten proiektu
banatan daude.*

ko herritarrek eta menpekotasun maila guztiak barne hartzen dituen. “Jendea, ordea, azken fasean baino ez da joaten, 80 urtetik gora edota dementziaren bat duenean. Etxeko egonaldia ahalik eta gehien luzatzen saiatzen gara, eta zentrorra joan behar dugunean, aurkitzen dugun ingurunea oso bortitza da. Europako ereduaren aldean, ezberdintasun nagusia da gure egoitzetan logelak daudela, ospitaleetatik datorren eredia delako, eta beste herrialdeetan aldiz, etxea da oinarria. Kontzeptu garrantzitsua da, norbere etxea utzi eta logela batean sartzeko aldaketa handia delako, hein batean zure nortasuna ere galtzen duzu, zure intimitatea...”

Izan ere, zahartzaroan ere etxean edo etxean bezala bizitzea da Europan orokortu den filosofia, eta hasieratik, 65 urte dituztenetik, etxebizitza eskaintza zabala dute, laguntza gutxiago edo gehiagorekin, egokitzen eta espezializazio txikiago edo handiagoekin, beharren arabera. Unean uneko premiei erantzuten dieten etxeak dituzte eskura –alokairurako eta etxer aldatzeko kultura barneratuagoa baitute– eta azken unerako baino ez dago aurreikusia egoitza. Artikulu honen bukaeran, Europan arrantzaturiko hainbat adibide aurkituko dituzu.

Egunsentia, lursail baten zain

“Euskaldunek duzuen kooperatibista izaerarekin, nolatan ez da horrelako proiekturik martxan jarri oraindik?”, galdetu omen diote behin baino gehiagotan Fernando Abajori. Lanerako-eta bai, kooperatibistak garela, baina intimitatea tartean denean, askok atzera jotzen omen du, dio Abajok: “Proiektu hauetan bakoitzak bere etxea du, baina eremu ugari partekatuak direnez, batzuek ez dute gustuko”. Egia esan, Euskal Herrian, han eta hemen, badira zahartzarorako etxebizitza komunitarioa egitea helburu duten egitasmoak, baina denak ere oso hastapenetan, dirua traba handia baita. Egunsentia da, ziurrenik, proiekturik sendoena, eta ez dago oso aurreratuta: “Momentu hauetan hogeitazazkide gara eta Bilboaldean garatu nahi dugu ekimena, baina orube bat lortzea dirutza da, garestia baino garestiagoa da Euskal Herrian lursail bat erostea”, kontatu digu Asun Fernandezek. Argi dauka, administrazioa inplikatzeko ez bada, ezingo dute asmoa gauzatu: “Ez bada legedia aldatzen eta gurea

» ASUN FERNANDEZ:

“Garai bateko auzoa dugu buruan: bakoitzak bere pribatutasuna mantentzen du, baina bizilagunek elkarri laguntzen diote; espazioak partekatzen dituzte harremanak eta ekintzak aurrera ateratzeko”

» FERNANDO ABAJO:

“Ekintzarako gogoz dagoen jendea, kooperatuz, autogestioa bultzatuz, eredu energetikoki jasangarrian... Brisa del Cantábrico biziki aberasgarria da, edozein udalek berera ekartzea amestu beharko lukeena”

» ASUN FERNANDEZ:

“Administrazioak ez badigu orubea uzten, Euskal Herrian ezinezkoa da. Lursaila erostea garestiegia da”

» FERNANDO ABAJO:

“Ondo bereizi nahi izan dugu zein den auzokideak egin dezakeen zaintza eta zer profesionalari dagokiona. Bizilagunari botika ekarriko diot farmaziatik, baina ez diot pixoihala aldatuko”

bezalako proiektu berritzaile eta kolaboratibo batentzat ez badigute lursail bat uzten, adibidez 75 urtez erabiltzeko, garajeak egiteko enpresa eraikitzaileei uzten dieten moduan, ez dugu aurrera aterako. Beste aukera bat litzateke eraikinen bat berritzea eta egokitzea, baina horretarako ere administrazioak lagatzea beharko genuke. Baserri bat moldatu eta 8-10 lagunentzako *cohousing* txiki bihurtzea, horrelako esperientziak ezagutzen ditut, baina gure planteamendua 30 bat lagunentzako da”.

Pasa den azaroan, Eusko Jaurlaritzak berrikuntza bat iragarri zuen, 2018-2020 Etxebizitza Gida Planaren barruan: merkatu librean etxea eskuratzea lortzen ez dutenei zuzenduta, alokairu publikorako etxebizitza kooperatibaren eredia probatuko du Donostian, Txominenean lursail bat erosita. Ikusiko da ea horrek bidea irekitzen dien Egunsentia bezalako proiektuei.

Kantabrian, 70.000 metro koadro eta 190 apartamentuko landa gunea

Egunsentia ekimenaren zailtasunak ikusita, hainbat euskaldunek erabaki zuten Brisa del Cantábrico proiektuarekin bat egitea, lursaila han merkeagoa izanik, bideragarria delako (bertan sartzeko 36.000 euro eskatzen dizkiete bazkideei). 2018 bukaeran aurreikusten dute obrak hastea. Asun Fernandezek ez du aldaketa egin, “erroak, lagunak, auzoa” ez dituelako utzi nahi; Fernando Abajo aldiz, Egunsentiatik hara aldatu denetako bat dugu: “Zahartzarorako seguru modukoa da hura niretzat, zerbait ziuerra. Etorkizunean hemen antzeko zerbait lortzen bada, beti izango dut haiekin hitz egin eta itzultzeko aukera”.

Kooperatiba parte-hartzailea eta autogestionatua da Brisa del Cantábrico, egitasmo soziala. Landa gunean kokaturiko 70.000 metro koadrotan, lora-tegidun 50 metro koadroko 170-190 etxebizitza eraikiko dituzte (beste 20 apartamentu txiki gonbidatuentzat) eta hainbat elkargune izango dituzte: kafe-tegia, sukaldea, jangela, erabilera antzeko gelak, garbitegia, isiltasunerako gela, liburutegia, gimnasioa, igerileku terapeutikoa, sendaketa gela, brikolaje-tailerra, baratzeak...

Adin nahasketa bermatu nahian, adin bakoitzeko 14 pertsona hartu dituzte gehienez, 50 eta 70 urte artekoak, “geriatriko moduko zerbait bihurtu ez



dadin”, azaldu du Abajok. Partekatzearen abantailak ere nabarmendu dizkiugu: “Erremintak adibidez, bakoitzak bere etxean joko osoa izan ordez, nahikoa da denentzat bakarra eta tailer txiki bat izatea, eta berdin garbigailua, edo zaintza profesionala: etxean norberak norbere zaintzailea edo gauean laguntzaile bana kontratatu ordez, merkeagoa izango da batzuen artean egitea”. Helburua ahalik eta buruaskien izatea baita, eta ildo horretan energetikoki jasangarri izatea ere bilatzen dute, hala nola energia berriztagarriak erabiliz, euriaren ura bilduz eta baratzea landuz. Kideek batasuna... eta askatasuna izango dute: “Bakoitzak aukera izango du nahieran antolatzeko. Esaterako, erabaki dezakezu otorduak etxean egitea, edo diru kopuru bat jarri eta beste hainbatekin jantoki irekian egitea”.

Abajok ez du zalantzarik: “Egitasmo biziki aberasgarria da, edozein herri-tako udalek berera ekartzea amestu beharko lukeena. Ekintzarako gogoz dagoen jendea, kooperatuz, autogestioa bultzatuz, energetikoki jasangarria...”.

Menpekotasuna areagotu ahala, zer?

Solasaldian, behin baino gehiagotan atara da gaia: harreman afektiboa eta elkarrenganako zaintza oinarrietako bat da proiektuotan, eta egiturak berak laguntzen du: “Eremua lotzen duen bidezka etxe guztien aurretik pasatzen da Brisa del Cantábricon –dio Abajok– eta inportantea da, baita elkarren arteko kontrolerako ere, norbait ez bada agertzen segituan konturatuko garelako eta

Europako ereduaren aldean, ezberdintasun nagusia da gure zahar-egoitzetan logelak daudela, ospitaleetatik datorren eredu delako, eta beste herrialdeetan aldez, etxea da oinarria. Kontzeptu garrantzitsua da. Argazkian, Madrilgo Trabensol proiektua (irakurri hurrengo orrian).

haren etxera joango garelako, ea ongi dagoen ikustera”. Jakina, kideen arteko zaintzatik harago, zerbitzu profesionala ere funtsezkoa izango da: “Muga ondo bereizi nahi izan dugu –argitu du Abajok–, zein den auzokideak egin dezakeen zaintza eta zer profesionalari dagokiona. Farmaziara joango naiz bizilagunak behar duen botika hartzera, baina ez diot pixoihala aldatuko”. Arreta zerbitzu profesionala izango dute eta menpekotasun handia izanik apartamentuan jarraitu ezin dutenentzat, hiru elkarbizitza unitate dituzte aurreikutsita: elkarbizitza unitate bakoitzak hamar lagun har ditzake eta etengabeko zaintza pertsonalizatuaz gain, sukaldea, jangela, egongela, lorategia eta bakoitzarentzako logela ditu.

Asun Fernandezek gaineratu du Egun-sentian ere eztabaidatu dutela horretaz: “Gure helburua da Egun-sentia izatea gure bizitokia hil arte, dauden laguntzak eta profesionalak baliatuz, baina gaixotasun batzuek burua galtzea eragiten dizute, agresibitatea sorrarazten... eta kasuan kasu erabakiak hartu beharko ditugu, gure artean eta senideekin hitz eginda, ea egoitzaren batera eramatea komenigarriagoa den, adibidez”.


Adineko jendeaz sarri ematen den irudia, gutxieteko ez bada infantilizatze

edo mezu ezkorrak emateko (osasun zentroak kolapsatzen dituztela, esaterako), mingarria dela dio Asun Fernandezek, asko direla oraindik egin ditzaketen ekarpenak. Guk behintzat, mundua eraldatzen jarraitu nahi duten zaharrak aurkitu ditugu artikulu honetan.



**TALLERES
MITXELENA**
S.COOP.





Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Eziago Poligonoa · Zikuñaga Auzoa
 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
 T 943 55 25 12 - 16 · F 943 55 28 16
 info@talleresmitxelena.com

[**www.talleresmitxelena.com**](http://www.talleresmitxelena.com)



Europako hainbat eredu



Ezker-eskuin: Trabensol ("inguru afektibo oso indartsua daukagu", esan digute); eta Turenako esperientzia: eraikin berean daude eskola eta zaharrentzako etxeak.

Etxebizitza kooperatibez gain, zahartzarorako beste hainbat aukera ere badira: belaunaldi uztarketa bultzatzen duten komunitateak, auzo guztia kontuan hartzen duten egitasmoak, buruko gaitza duten zaharrentzako herriak...

TRABENSOL: KOADRILA KONTZIENTZIATU BATEN EGITASMOA

Gaztetan, etxebizitza kooperatibak sortu zituzten; umeak izan zituztenean, hezkuntza aurrerakoiagoa oinarri zuten ikastetxe kooperatibak; eta 2013tik, jende bera Trabensol proiektuko etxebizitza kolaboratiboetan bizi da, Madril-en. Zahartzarorako proiektu soziala da, bioklimatikoa, geotermikoa, eta etxebizitza indibidualak eta denontzako gu-neak uztartzen ditu: "Oreka bilatu dugu bizitza indibidual eta kolektiboaren artean". Jaime Moreno, Paloma Rodríguez eta Felisa Laíz kideen arabera, eguna hasi daiteke martxa nordiko bat eginez, edo txangoren batekin, gero chi kung pixka bat, zine-foruma arratsaldean, bestelako tailerrak... "baina horrek ez du esan nahi denean parte hartu behar dugunik, batzuetan etxean egon nahi duzulako, lasai-lasai, musika entzuten edo irakurtzen".

Harremanak funtsezkoak dira Trabensolen: "Inguru afektibo oso indartsua daukagu, eta zaintzan arreta fisikoa edo intelektual soilak ez dizu hori ematen; gizakiok kariñoa behar dugu".

Hala ere, egungo kideak aktiboak diren arren, badakite menpekotasun handiagoko garaiak iritsiko direla: "Errealitate horri eta etorriko diren beharrei erantzuteko pentsatuta dauden espazioak baditugu, baina jakin badakigu ez direla nahikoa izango eta ez ditugula erantzun guztiak. Lan-batzordea aritzen gara eta batzordeetako batean etorkizuneko erronkei heltzen diegu, tartean osasun gainbeherari; pertsona zentraturiko zaintza ereduak ari gara aztertzen".

DANIMARKA AITZINDARI

Hemen bezala gertatzen zen Danimarkan: zahar egoitzak adin tarte zabala-gorako pentsatuak zeuden arren, azken fasean zeudenak baino ez ziren bertaratzen. Beraz, egoitzak azken etaparako utzi eta etxebizitzaren eredura jo zuten 1970eko hamarkadan. Adinekoek haien beharrei egokিতa-ko etxebizitza eskaintza zabala dute herrialdean, eta horretarako adminis-trazioaren inplikazioa funtsezkoa da: etxebizitzaren eskaintza publikoa denean, administrazioak berak jartzen du orubea eta bertan proiektua egingo duten irabazirik gabeko kooperatibei erraztasun ekonomikoak ematen dizkie (kreditu onak...). Ekimen pribatua denean, antzera gertatzen da: promotoreek prezio onean lortzen dute lur-saila eta haiek gero baldintza jakinetan eta mugatuta dauden salneurrietan

egin behar dute eskaintza. Adminis-trazioak, gainera, diru-laguntza ugari eman ohi ditu, beharrezkoak diren zerbitzuak bermatzeko.

GHETTOAK SAIHESTEKO, NAHASKETA

Adinekoentzat espresuki eraikitako etxebizitza edo etxebizitza multzoetan, herri guztia erabilgarri diren ekipamenduak txertatzea da hainbat herrialdetan hautaturiko bidea. Hala, lehenengo solairuan adibidez supermerkatua edo ikastetxea egiteak ekarriko du adin guztietako jendea hurbiltzea eta nahastea, adinekoak ez daitezen isolatuta geratu.

Antzeko helburuarekin, European nahiko orokortuta dagoen eredu da etxebizitza promozioak egitea zaharrentzat eta gazteentzat leku berean. Etxe horietan sartzeko, adina baldintzetako bat bihurtzen da eta modu horretan belaunaldi arteko uztarketa bermatzen da, horrek dakarren aberastasunarekin.

Harago joan dira Frantziako Turena eskualdean: eraikin berean daude Lehen Hezkuntzako ikastetxea eta zaharrentzako etxebizitzak -Marpa sarearen barruko etxebizitzak dira, irakurri hurrengo puntua-. Ekimen aitzindari honi esker, hainbat adinekoek eskolak, bazkariak eta irteerak partekatzen dituzte gazteekin, ikaskideak baitira denak.



Ezkerrean, Marpa eredua, bizitza guztia landa gunean eman dutenentzat pentsatua. Eskuinean, "Dementeen Herria": buruko gaitza duten zaharrak dira biztanleak.

BASERRITARRENTZAT PROPIO

Bizitza guztia landa eremuan eman dutenengan pentsatuz, 1980ko hamarkadatik Marpa eredua zabalduta dago Frantziako Estatuan: landa-guneko etxeak dira, adinekoentzat, norbere ingurunea ahalik eta gehien errespetatzeko eta bat-batean hiriko pisu batean sartzeak sortu dezakeen deserrotzea saihesteko asmoz. Hemen ere, etxebizitza pribatuak eta espazio partekatuak dituzte eta gehienez 24 lagunentzako daude pentsatuak. Guztira, 190 egitura inguru daude Estatuan, elkarteek kudeatuak.

DEMENTEEN HERRIA

2010ean sortu zuten Hogewey herria, Herbehereetan. Dendak, lorategiak, parkeak, jatetxeak, posta bulegoa... ditu, baina herri berezia da: biztanle gehien

-gehienak pazienteak dira, gaixotasun kognitiboren bat dute (alzheimer kasu) eta haien beharren arabera diseinaturiko herria da -aire zabalean dagoen 16.000 metro koadroko ospitalea bailitza-. Herritar-pazienteak bost edo seinaka bizi dira etxeetan eta helburua da herri arrunt batean bizimodu arrunta egin dezatela, eguneroko ohiturak ahal bezainbeste mantentzea, horrek zaintza profesional eta medikalizazio gutxiago eskatuko duelakoan. Aldi berean, demenziazirik ez duten biztanleak kontzientziatuta eta prestatuta daude, behar izanez gero esku-hartzeko, eta baten batek jarraera ezohikoren bat badu (garrasika hasi, biluztu...) ez asalatzeko. Nonbait, burua galtzen hasten den jendeak joera handia du autobus geltokietara joateko, eta autobus geltokia ere badu Hogeweyk, baina bertatik ez da inoiz autobusik igarotzen.

AUZOA HELBURU

Auzoak birgaitzea da Berastegi eta Etxeberria arkitektoen proposamena: auzoa bera izatea behar ezberdinei erantzungo diena, bateko eta besteko zerbitzuak bermatuko dituen edota bizilagun kontzientziatu eta prestatuak izango dituen -"auzo lagunkoiak" deiturikoetan, adibidez, bakarrik bizi diren zaharrak identifikatzen dituzte eta bisitak egitera joaten zaizkie auzokideak-. Auzoan bertan, etxebizitza batzuk adineko jendearentzat egokituta egongo lirarteke eta saiestuko litzateke adineko jendea beste norabait joan behar izatea, edo zahartzen diren auzoen gainbehera. "Beste herrialde batzuetan, herriak sakabanatuagoak dira, baina guk auzo trinkoak ditugu eta bakoitzak berera ongien egokitzen den soluzioa bilatu behar du. Auzoetan jarri beharko genuke begirada". ■



ARABAKO BERTSO KUADRILLA 2018 ARTEKO A

URTARRILAK 19 - MARTXOAK 17

BAT-BATEKO 14 TALDE

IDATZIZKO 17 TALDE

14 KANPOAKETA, 3 FINALURREKO

ETA FINALA 350 PARTE HARTZAILE



arabako bertsozale elkartea

www.bertsozale.eus/araba



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Vital gizarte ekintza



LABORAL Kutxa



udapa



artepan



ARGIA